




LIBURUA

# Biografia feminista bat



DANI BLANCO

## EMPAR PINEDA ERDOZIA: GORPUTZAK HALA ESKATUA

**KATTALIN MINER**

HERNANIKO UDALA/

BERDINTASUN ARLOA, 2020

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**G**aurkoan aurkeztuko dizuedan liburua berezia da. Ez dut liburudenda askotan ikusi. Katakarakera egindako bisita batean aurkitu nuen, ez bainuen bere berririk. Akaso izango da Hernaniko Udala/ Berdintasun arloa delako argitaratzailea. Eta sarri, liburu hauek bide motzagoa izaten dute. Pena da, niretzat ezezaguna bazen ere interesgarria baita kontakizuna.

Hernaniko emakume talde batek egindako ekimen batean du hasiera liburuak, herriko emakumeek egin dituzten ekarpenak eta borroak omendu eta balioan jartzeko asmoarekin antolatua. Ekimen horretan, liburuko protagonista den Empar Pineda Erdoziaren bizitza azaltzeko proposamena jaso eta onartua izan zen.

Liburua Kattalin Minerrek Pinedari egindako elkarrizketaren ondorio da. Empar Pineda Erdoziaren biografia bat,

azken finean. Baina biografia soil izatetik urruti, dimentsio kolektiboa ematen diote bien artean. Izan ere, Miner eta Pineda, biak ala biak dira militante feminista hernaniarrak.

Elkarrizketa batean oinarritua egonagatik ez ditugu galdera-erantzunak irakurriko. Minerrek lehenengo pertsonan kontaktuko dizkigu elkarrizketaren nondik norakoak. Pinedaren erantzunak batzuetan lehenengo pertsonan egongo dira kaxatx artean. Bestetan, zeharka kontaktuko dizkigu autoreak. Honek tonu gertukoagoa ematen dio testuari, Minerrek bere bizipen eta oroitzapenekin lotutako hausnarketak tartekatzen dituelako. Erantzunek sortzen dioten emozio eta miresmena agerian uzten ditu. Pare pare hitz egin dutela nabari da.

Niretzat ezezaguna zen protagonista. Emakume aktiboa, segurua eta ausar-

ta. Garaiko lesbiana ezaguna eta abortu eskubidearen defentsan aritua. Hainbat antolakunde, mugimendu eta elkarretaratze ditu hizpide. Bere historia da, baina historia orokorragotik ere badago zerbait liburuan.

Ariketa bereziki interesgarria iruditzen zait gaur egungo Euskal Herriaren gure emakumeen genealogia propioa egitea. Genealogia politikoa egiten tematu gara, eta emakumeak oro har baina feministak bereziki, albo batera uzten dira liburu gehienetan. Horretarako liburu sakon eta zehatza da *Gure genealogia feministak* liburua, mugimendu feminista-ren kronika jasotzen duena.

Minerrek idatzitako liburua argazki eta ilustrazio gutxi batzuekin dago osatuta. *Baina* bakarria motza dela da. Gustura jarraituko nuke emakume honen inguruan irakurtzen. ●